


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **HERAKLESEK BUDA EZAGUTU ZUENEAN**

GREKOBUDISMOA ALEJANDRO HANDIA ETA KANISHKAREN ARTEAN

(K.a. IV- K.o. II)

Egilea: Iker Rodriguez Fernandez

Gradua: Historia

Ikasturtea: 2018-2019

Tutorea: Maria Elena Torregaray Pagola

Saila: Ikasketa Klasikoak



## LABURPENA

Gratu Amaierako Lan honen helburua Grekobudismoa, hots, kultura helenistiko eta erlijio budistaren arteko sinkretismoa, baldintzatu zituzten faktoreak eta honen garapena aztertzea izango da. Alejandro Handiaren kanpaina militarren ostean Baktria eta India Ipar-Mendebaldean greziarren komunitateak ezarriko ziren, zeintzuk kultura, tradizio eta sineskera helenoak hurrengo mendeetan zehar mantenduko zituzten. Era berean, Mauriar Inperioko Asoka erregeak budismoa zabaltzeko monje misiolariak bidaliko zituen India inguruko lurraldeetara, greziar komunitate hauek konbertsio kanpaina hauen helmugetako bat izanik. Nahiz eta Budismoarekin sinpatizatu izan zezaketen sujetu greziarren kasuak existitu, Pirron Elisekoa bezala, komunitate budistaren babesaren lortzeko budismoaren aldeko politika bat bultzatu zutenak errege Indo-Greziarrak izango ziren, zeintzuk sinbolo budistak erabiliko zituzten haiek jaulkitutako txanponetan. Halaber, agintari greziar batzuk, Menandro I bezala, literatura budistan budismoaren babesle sutsuak bihurtuko ziren. Azkenik, Kushan Inperioaren garaian bateratu ziren hainbat elementuen bateratzeari esker Grekobudismoa Gandhrako eskolako artelanetan materializatuko zen, sinkretismoa bere puntu gorenera iritsiz eta helenismoa ikonografia budistaren garapena definituko zuen funtsezko osagai bat bihurtuz.

**Gako-hitzak:** Sinkretismoa, Grekobudismoa, Alejandro Handia, Pirron Elisekoa, Asoka, Baktria, Menandro, Indo-Greziarrak, Kushan Inperioa, Kanishka, Gandharako Artea.

## ABSTRACT

The aim of this essay is to analyze the historical facts and development of Greco-Buddhism, that is, the syncretism between Greek culture and Buddhism. Greek communities would settle down in Bactria and North-West India after the campaigns of Alexander the Great, importing and maintaining Hellenic culture, costumes and beliefs through the next generations. Likewise, the Mauryan king Ashoka would launch the first massive missionary campaign in order to convert all the territories surrounding India into Buddhism, which also included the areas inhabited by the aforementioned Greeks. Even though some cases of Greek figures sympathizing with Buddhist ideas existed since the time of Alexander, such as that of Pyrrho of Elys, Indo-Greek kings would be the first to adopt a policy in favour of Buddhism with the aim of obtaining the respect of the Buddhist

community. Not only would they start using Buddhist symbols in their royal coins, but they would also be portrayed as protectors of the Buddhist faith, as it happened to Menander I. Finally, thanks to the accumulation of different elements during the time of the Kushan Empire, Greco-Buddhism would materialize through the artworks of the Gandhara School, reaching this syncretism its peak as Hellenism became a substantial element that defined the development of Buddhist iconography.

**Key words:** Syncretism, Greco-Buddhism, Alexander the Great, Pyrrho of Elys, Ashoka, Bactria, Indo-Greeks, Menander, Kushan Empire, Kanishka, Gandhara Art.

**Oharra:** GrAL honetako irudi eta mapa guztiak *Wikimedia Commons*-en eskuragarri daude.

**Azaleko Irudia:** Herakles Budaren Vajrapani (Babesle) bezala irudikatua, Gandhara (k.o. II), British Museum.

## AURKIBIDEA

|   |       |
|---|-------|
| 1. Sarrera  | 4-5   |
| 2. Iturriak eta arazoak   | 5-7   |
| 3. Aurrekariak (K.a. IV-III)  |       |
| 3.1. Alejandro Handiaren Kanpainak eta lehen greziar migrazio handia Indian | 7-8   |
| 3.2. Buda Greziarra: Pirron Elisekoa  | 8-10  |
| 3.3. Aliantza Mauriar-Seleukotarra eta Asokaren misioak                     | 10-12 |
| 4. Sinkretismoaren sendotzea (K.a. III-I)                                   |       |
| 4.1. Eutidemiaren Dinastia eta kultura eklektikoaren garapena               | 12-14 |
| 4.2. Greziarrak eta budismoa: Menandroren kasua eta ikonografiaren garapena | 14-17 |
| 5. Greko-Budismoaren loraldia (K.o. I-II)                                   |       |
| 5.1. Kushan Agintarien filohelenismoa eta Kanishka Handia                   | 17-19 |
| 5.2. Gandharako Arteak: Heraklesekin Buda ezagutu zuenean                   | 19-22 |
| 6. Ondorioak  | 22-23 |
| 7. Eranskinak   |       |
| 7.1. Bibliografia   | 24-25 |
| 7.2. Mapak  | 26-28 |
| 7.3. Irudiak  | 29-30 |
| 7.4. Numismatika  | 31    |
| 7.5. Iturri literarioak   | 32    |

## 1. SARRERA

Zalantzarik gabe, Gradu Amaierako Lan hau egitera azken urteetan nire bizitzan gertatutako esperientzia batek bultzatu nau.

Izan ere, pasa den urtean *Erasmus* elkartruke programa egiteko aukera izan nuen. EHU-k urrutiago ez zeuden helmugako herrialdeak eskaintzen zituenez, nire bizitza aldatuko zuen urtea Hego Korean igaro nuen. Gelakide bezala monjeak eta budismoari buruzko ikasgaiak izateak erlijio honi buruz (egiataz bizimodu bat baino ez dena) nituen aurreiritziak apurtzen lagundu zidan nire interesa handitu zen bitartean.

Hain zuzen ere, nire atzerriko esperientziaren antzera, Alejandro Handiaren kanpainen ostean Indiako Ipar-Mendebaldean finkatu ziren komunitate greziarrak haien guztiz ezezaguna zen Budismoarekin topo egitean gertatutako fenomeno bat izango da GrAL honen aztergaia: Grekobudismoa, hau da, greziar kulturaren eta budismoaren arteko sinkretismoa.

Egiturari erreparatuz, nire lana garatzeko erabiliko ditudan iturri nagusiak azaldu eta gai honen ikerketak izandako arazo historiografikoak azaltzen hasiko naiz.

Bigarrenik, kultura greziarra eta budismoaren topaketa baldintzatu zuten gertaera historikoak azalduko ditut. Alde batetik, Alejandro Handiaren kanpainen ostean Gandharako esparruan ezarri ziren greziarren migrazioan zentratuko naiz. Bestetik, greziarrek hasierako fase honetan Indiar pentsarekin izan zezaketan gertutasuna azaltzeko Pirron Elisekoaren kasua azpimarratuko dut, zeinak pentsaera budistarekin paralelismo handiak zituen filosofia bat garatu zuen Grezian. Azkenik, Mauriar Dinastiako Asokak bultzatutako misio kanpainen garrantzia komentatuko dut honek greziarrekin izan zuen erlazio estuari erreferentzia eginez.

Hirugarrenik, sinkretismoa ahalbideratu zuten Baktria eta India Iparraldeko erresuma greziarren garrantzia azalduko dut. Erresuma hauetako biztanleek herentzia greziar klasikoa mantendu ez ezik inguruko herrien ohiturak eta sineskerak bereganatzen joango ziren, *polis* egitura zuten lurralde hauetako hiri-estatuetan erlijio askatasunak definitutako kultura eklektiko bat sortuz. Erresuma hauetako agintari batzuk, Menandro I bezala, budismoaren bultzatzaile sutsu eta kanon idatzi budistako pertsonaia garrantzitsuak bihurtuko ziren.

Laugarrenik, sinkretismo honek Kushan Inperioak bultzatutako Gandharako eskolan izan zuen loraldia analizatzen amaituko dut. Hain zuzen ere, kultura greziarra eta budismoaren arteko sintesia Kushan agintarien filohelenismoari esker garatu eta hedatu zen ikonografia eta artelanetan bere puntu gorenera iritsiko zen, artelan hauek motibo budistak estilo nahiz elementu greziar klasikoek bidez irudikatzen zituztela.

## 2. ITURRIAK ETA ARAZOAK:

Sinkretismo honen garapena eta garrantzia azaltzeko erabiliko ditudan iturriei erreparatuz, esan beharra dago Grekobudismoa eta oro har Ekialde Helenistiko Urruneko historiako elementuen ikerketa eztabaida historiografiko anitzek eta interbentzio arkeologiko nahiz ikuspuntu holistiko baten faltak ezaugarritzen dutela.

Iturri idatzi greziarrei begira, Plutarko, Estrabon eta Apollodoro bezalako autore klasikoek lanetan Gandharako eskualdera Alejandrekin batera iritsi ziren greziarrei eta bertan etorkizunean nagusitu ziren erreinu greziarrei buruzko deskribapenak aurkituko ditugu. Hala ere, gure eskuetara iritsi diren dokumentu gehienak, Estrabonek bere *Geografia* lanean Megastenesen *Indika*-ri buruz egindako erreferentzien moduan, Gandharan greziar biztanleria nagusi zen garaiko lanen hurrengo mendeetako aipamen hutsak dira. Iturri idatzi indiarretan, aldiz, greziar edo mendebaldeko edozein herriari erreferentzia egiten dioten *Yona* nahiz *Yavana*<sup>1</sup> terminoen aipamenak aurkitu daitezke literatura vedikoko Mahabaratta bezalako epepeietan. Dena den, zuzenean budismoarekin kontaktua izan zuten greziarrei buruzko deskribapenak Kandahar-eko Asoka erregearen ediktuetan eta Sri Lankako literatura Budistako *Milindpanha* eta *Mahamvasa* lanetan aurki ditzakegu, zeintzuetan greziarrak komunitate budistaren parte eta budismoaren bultzatzaile sutsu bezala aurkezten diren (Mairs, 2011:12-13).

Zalantzarik gabe, Gandharako eskualdean herentzia greziar klasikoa mantendu eta inguruko sineskera eta ohiturak bereganatzen hasi ziren erreinuak ikertzeko pisu handiena izan duen iturri mota numismatika izan da. Hain zuzen ere, Greziar eta Karoshti<sup>2</sup> alfabetoarekin idatzitako leiendak dituzten txanpon elebidunen aurkikuntzak ahalbideratu

---

<sup>1</sup> Hitz hauek *Ionia* terminoarekin erlazionatu daitezke, Persiarrek arameraz erabiltzen zutena hain zuzen (Sanujit, 2011).

<sup>2</sup> K.a. IV. mendetik Gandharako eskualdean Gandhari prakrit hizkuntza idazteko erabiltzen zen idazkera sistema. James Prinsep-ek (1799-1840) deszifratu zuen Errege Indo-Greziarren txanponetaz baliatuz (Sanujit, 2011).

du Grekobudismoa garatu zen erreinu Indo-Greziarreko agintarien zerrenda bat eratzea. Hain zuzen ere, txanpon hauen ikonografian antzemango da lehen aldiz motibo greziar eta budisten arteko konbinaketa, Kushan garaian tradizio honen jarraipenak budaren irudikapen antropomorfoaren garapena bultzatuko duela (Sanujit, 2011).

Ekialde Urrun Helenistikoaren ikerketa mugatu duten faktoreetako, hain zuzen ere, dokumentu eta numismatikaren analisiak izan duen monopolioa izan da interbentzio arkeologiko murrizten aurrean. Hau horrela. 1960. Hamarkadako Ay Khanoum bezalako aztarnategien aurkikuntzak fase berri bat hasi zuen garai helenistikoko biztanleria greziar eta indiarren arteko ikerketen historian. Ustez *polis* greziar prototipiko bat zen aztarnategi batean jatorri indiarreko ikonografia, elementu arkitektonikoak eta praktika erlijiosoen aztarnak aurkitzeak ordura arte ikerlarien artean nagusitzen zen greziar eta indiar biztanleriaren arteko dikotomiarekin apurtu zuen (Mairs, 2011:14-15).

Izan ere, Ay Khanoum-en aurkikuntza baino lehen Indo-Greziarren garaiko kultura aztertzen zuten historialarien artean bi joera kontrajarri nagusitzen ziren. Alde batetik, W.W. Tarnek, inperialismo Britainiar garaiko historialaria izanik, ikuspuntu eurozentrista bat aurkeztu zuen. Bere ustez, Alexandroren kanpainaren ostean Gandharan ezarritako greziarrek izugarritzko eragin esparru handia izan zuten haiek sortutako *polis*-ek greziar zibilizazio garatuagoa islatzen zutelarik. A.K. Narain indiar historialariak, berriz, kultura indiarrek greziar komunitate hauek, bere ustez hiri indiarren menpeko geto etnikoak baino ez zirenak, asimilatu zituela proposatuko du (McEvelley, 2002:650-653). Rachel Mairs bezalako azken hamarkadetako ikerlariak “helenistiko” kontzeptuaren esanahian kultura helenoak duen pisuarekin bukatzea beharrezkoa ikusi dute dikotomia honekin bukatzeko. Funtsean, Grekobudismoa fenomeno helenistiko bat dela esaten dugunean elementu greziarren eta indiarren arteko fusio kultural bat bezala ulertu behar dugu, zeina funtsean bi komunitateen arteko erkarbizitzaren ondorioetako bat izan zen (Mairs, 2011:9-15).

Gai hau aztertzen duen gaur egungo historiografia, beraz, azkoz ere holistikoa, multidisziplinaria eta kritikoagoa dela esan dezakegu, Tarn bezalako XX. mende hasierako autoreen eurozentrismoa eta iturri klasiko nahiz numismatikaren supremazia alde batera utziz. Rachel Mairsen azken urteetako lanek Ekialde Urrun Helenistikoko gizarte eklektikoak aztertzeko arkeologiaren garrantzia azpimarratu duten bitartean (Mairs, 2011, 2013 eta 2016), Shukla (2014) eta Sick (2007) bezalako historialariak greziar eta indiar pentsaeren arteko paralelismoak ikertu dituzte testu klasiko eta kronika

indiarren konparaketaren bitartez. Nahiz eta ikuspuntu orokor bat ematen saiatu diren autoreak existitu, Halkias (2014) eta Foltz-en (2010) kasuak bezala, lan honek aztergai duen sinkrestismoa bereziki artearen historiaren ikuspuntutik ikertu da, besteak beste, Homrigausen (2015) eta Brancaccioren (2009) antzera greziar kulturako hainbat motiboen garapen ikonografikoa aztertzen zentratu diren lanak nagusituz..

Bukatzeko, esan beharrik ez dago azken urteotako testuinguru politiko tirabiratsuak geldiarazi egin dituela Afganistan eta Pakistaneko zonalde batzuetako interbentzio arkeologikoak eta kultura materialaren analisia, Grekobudismoa garatu zen Gandharako lurraldeetan hain zuzen. 2001ean Talibanak bezalako muturreko taldeek suntsitutako Buda erraldoiak galtzen ari den ondare kulturalaren adibide garbiak dira, maisulan hauek Gandharako eskolaren bitartez kultura greziar eta budismoaren arteko sinkretismoa bere puntu gorenera iritsi zenaren ebidentzia adierazgarriak izanik.

### **3. AURREKARIAK (k.a. IV-III)**

#### **3.1 Alejandro Handiaren Kanpainak eta lehen greziar migrazio handia Indian**

Zibilizazio indiar eta greziarraren arteko lehen elkartruke kulturalak k.a. VI. mendetik dokumentatu daitezke, Asiar Minor greziarra eta Baktria Inperio Pertsiar Akemenidarren menpeko satrapiak ziren garaitik. kontaktu hauen ebidentzia argiak dira, esaterako, Baktrian Alejandroren etorrera baino lehenago datatuta dauden txanponen aurkikuntzak, merkataritza sareek bi zibilizazio hauen arteko elkartruke ekonomikoak ahalbideratzen zituztela adieraziz (Halkias, 2014:66-67).

Dena den, Baktria eta Indian ezarriko ziren greziarren lehen migrazio olatu handia Alejandro Handiaren kanpainekin hasiko zen, hau horrela kultura greziarra Gandharako eskualdean luzarorako errotuko zelarik. Hain zuzen ere, k.a. 330an Alejandro, bere tropekin ez ezik, artisau, merkataritza eta familia greziar kolonoekin batera iritsiko zen Asia Zentralera, bere espedizioan batu zitzaizkion filosofo eta irakasleek kultura helenoa mantentzeko ahaleginak egiten zituztelarik. Plutarko bezalako autore klasikoek Alejandro 120.000 greziarrekin Indiarantz abiatu zela esaten digute, zifra irreal honen atzean k.a. 329-325 bitartean bultzatu ziren etengabeko espedizio militarrek egonik [ikus 1. Mapa eranskinean]. Urte guzti hauetan espedizioek Mediterraneotik iritsitako laguntza militarra eta baliabideak jaso ez ezik, armadaren mantenua sendotzeko gotorlekuak eta bere



eponimoa eramaten zuten *polis* egiturako hirien sare bat sortuko zuen (McEvelley, 2002:640-645).

Zalantzarik gabe, etorkizunean Indiarantz hedatuko zen eragin politiko eta kultural greziarra nagusitzea ahalbideratu zuen faktore bat k.a. 326ko Taxila hiriaren okupazio mazedoniarra eta kuartel militar baten sorrera izan zen. Greziarrek Taxila bereganatzean Indiarako sarbide naturalaren kontrola eskuratu zuen. Merkataritza sareen topagune nagusietako bat izanik, kultura, sineskera eta hizkuntza desberdinak inportatzen zituzten bidaiariek sortutako kultura eklektiko bat garatu ez ezik etorkizunean Taxila, Gandharako beste hiri helenistikoen antzera, pentsaera budistak eta kultura greziarrak topa egingo zuten zentro nagusietako bat bihurtuko zen (McEvelley, 2002:646 & Sanujit, 2011).

### **3.2 Buda Greziarra: Pirron Elisekoa**

Alejandrekin batera Indiara iritsi ziren greziarrek, bertako biztanleriarekin lehenengo kontaktua izan eta gero, budismoa bezalako pentsaera sistema guztiz ezezagunak zenbateraino bereganatu zitzaizketen ikusteko ezin hobea iruditzen zait pirronismoaren garapena ikertzea. Izan ere, Pirron Elisekoaren bizitza (c. K.a. 360-270) eta berak Grezian garatu zuen filosofia eszeptikoak greziarrek hasiera batetik budismoak proposatzen zituen hainbat ideiekiko eduki zezaketen gertutasuna eta asimilazio ahalmena erakutsi diezagukete.

Diogenes Laertzio (c. K.o. 180-240) biografoaren arabera, K.a. 334an Pirronek Alejandro Handiari bere kanpaina militarrean jarraituko zion Gandharako eskualdean 5 urte armadarekin igaroko zituela. Bertan, Hindu Kush mendikatea zeharkatu eta gero, greziarrek *gimnosofista* bezala, hau da, biluzik ibiltzen ziren filosofoak, izendatzen zituzten indiar aszeta ibiltariak eta *magiak*, hots, gizon jakintsuak, ezagutuko zituen (D. L. 9.11. 61). Indiar aszeta hauen ideia eta sineskeren eragina dela eta, Pirrok K.a. 323a baino lehen Greziara itzultzean oinazearekin bukatzea eta bake egoera batera iristea helburu zuen etika bat garatu eta zabalduko zuen, hain zuzen ere, budismoarekin oinarritzko antzekotasunak dituen (Beckwith, 2015:13-16).

Pirronismoaren sorrera pentsamendu indiar eta bereziki budisten eraginek baldintzatu zituela proposatzen duen tesiak desadostasun ugari azaleratu ditu historialarien artean. Everard Flintoffek, adibidez, eragin indiarren garrantzia azpimarratuz, Pirronek garatutako filosofia eszeptikoaren egituraketak doktrina budistarekin paralelismo handiak

zituela defendatuko du, dialektikaren erabileran oinarritzen ziren gainontzeko eskola filosofiko dogmatikoen aurrean pentsaera guztiz iraultzaile bat izanik. Izan ere, Pirronek Grezian aszetismoan oinarritutako bizimodu bat praktikatu ez ezik (Budismo primitiboak eredugarritzat hartzen zuena, hain zuzen), bizidun ooren azken helburua *Ataraxia* bezala izendatu zuen lasaitasun egoera batera iristea zela proposatu zuen, budismoak bere soteriologiaren erdigunetzat duen Nirbanarekin alderatu daitekeena (Kuzminski, 2008:41-45).

Modu berean, Christopher I. Beckwithek bi doktrinen arteko paralelismoa haien etika ezaugarritzen zuten hiru elementu negatiboen nagusitasunak erakusten zuela defendatzen du: Betikotasun eza, estabilitate eza eta identitate eza<sup>3</sup>. Halaber, budaren figurari gertatu zitzaion bezala, Nausifanes (c. K.a. 325) bezalako filosofoak Pirron izaki dibino bat bezala aurkezten hasi ziren. Funtsean, Beckwithek Pirronek Gandharan indiar aszeteekin izandako kontaktuaren ostean budismo primitiboaren oinarritzko elementuak bereganatu eta budismo greziar bat sortuko zuela proposatuko du (Beckwith, 2015: 53-54).

Dena den, historialari klasizista batzuek proposamen hauek ukatu eta Pirronismoa jatorriz greziarra dela defendatuko dute. McEvelleyk, esaterako, Pirronen eszeptizismoa Demokritoren doktrinaren jarraipen bat dela esango du<sup>4</sup>, Pirronek Indian izandako esperientziak soilik iraganeko greziar maisuen eskutik jaso zituen ideiak gogoraraziz. (Kuzminski, 2008:48-49). Beckwithek, aitzitik, kritika hauei erantzuteko Pirronismoa sistema filosofiko guztiz iraultzaile bat bezala definitzen zuela aitortuko du. Halaber, Pirronen filosofiak zuzenean *Sramana* aszeten budismo primitibotik edaten duela proposatuko du. Hain zuzen ere, Pirronen garaikidea izan zen Megastenesek bere *Indica*-n, Sramana hauei buruz hitz egiten duenean, Pirronek Grezian hedatutako bizimodu ibiltaria bahiz kontzeptu etikoak gogorarazten dizkiguten praktika eta sineskerak aipatuko ditu (Beckwith, 2015:67-71).

Pirronismoaren jatorriari buruzko eztabaida alde batera utzita, argi dagoena da Alejandrearekin batera iritsi ziren lehen greziarren eta budismo primitibo eta aszetiko bat

---

<sup>3</sup> Elementu hauek palierazko doktrina budista osatzen duten *Anica*, *Dukkha* eta *Annatta* kontzeptuak izango ziren hurrenez hurren. Pirronismoan, aldiz, *Anepitrikita*, *Astahmeta* eta *Adiaphora* termino greziarrenkin alderatu daitezke (Beckwith, 2015: 25-31).

<sup>4</sup> McEvelley-k Demokritoren filosofiaren oinarritzko kontzeptuetako bat den *Euthymia* (Poztasuna) Pyrrhoren Ataraxia-rekin parekatzen du. Hala ere, Demokritok kontzeptu honi zentzu erlijioso bat ematen dio (Kuzminski, 2008: 49-50).

praktikatzen zuten indiarren artean kontaktuak izan zirela, Megastenesen deskribapenek edota Pirronen bizitzari buruzko kontakizunek erakusten duten bezala. Era berean, Pirronen filosofia eta budismo primitiboaren arteko paralelismo handiek greziarrek kontzeptu etiko, sineskera eta bizimodu indiarrek bereganatzeko gai izan ez ezik, elementu hauek gizarte greziarrera egokitu eta haien kosmobisioaren arabera transformatu zituztela adierazten dute. Funtsean, Pirronismoa etorkizunean Gandharako eskualdean kultura greziar eta budismoaren arteko sinkretismoa ahalbideratuko zuen ideia kanpotarrekiko jarrera ireki baten aurrekina bezala ulertu dezakegu.

### **3.3 Aliantza Mauriar-Seleukotarra eta Asokaren misioak**

Budismoak izan zuen lehen eskala handiko hedapena ezinezkoa izango litzakete Mauriar Inperioaren (k.a. 320-180) garrantzia kontuan izan gabe azaltzea, zeinak hasiera batetik komunitate greziarrekin erlazio estuak izan zituen.

Alejandro Handiaren garaikidea izan zen Txandraguptak (c. k.a. 340-297), Mauryar Dinastiako lehenengo agintariak, gaztarotik izan zituen harreman pertsonalak greziarrekin. Bere hezkuntza Taxilan gauzatu ez ezik, arestian aipatu dugun mazedoniarrek okupaturako Gandharako zentro ekonomiko eta politikoa zen hiria, Seleuko Nikator jeneral mazedoniarrekin ezkontza bidezko aliantza bat egin zuen Diadokoen Gerraren testuinguruan [ikusi 2. Mapa eranskinean]. Hau horrela, Seleukoren alaba Chandraguptarekin ezkondu eta Seleukok Gandhara eskualdeko lurraldeak Mauryar Inperioari eman ez ezik, Txandraguptak Seleuzidar armadari 500 gerrarako elefante eman zizkion. Era berean, aliantza honen ostean greziarrek izugarritzko presentzia eta eragina izatea lortuko zuten Mauryar gortean, Pataliputrara (Mauryar hiriburua) Megasthenes bezalako enbajadore Seleuzidak joango zirelarik (Halkias, 2014:79-80).

Bestalde, Chandraguptaren biloba zen Asokaren erreinualdian (k.a.268-239) Budismoak bere historiako lehenengo misio kanpaina masiboa ezagutuko zuen [ikusi 3. Mapa eranskinean]. K.a. 244an Pataliputran Shanga, hots, komunitate monastiko budista, budismoak bere sorreratik izan zuen hirugarren kontzilioan bilduko zuen, Budismoak jarraitu behar zuen ortodoxia finkatu ez ezik atzerriko erreinuetara monje misiolariak bidaliz (Foltz, 2010:37-38).

Misio kanpaina hauek greziar komunitateengan izan zuten eragina irudikatzen lagundu diezaguketen iturri epigrafikoa 1963an Kandahar-en (Afganistan) aurkitutako Asokaren ediktuak dira. Ediktuak, funtsean, Asokak budismora konbertitu eta gero bere kontrolpeko lurraldeetan zehar zabaldu nahi zuen lege budistaren inskripzioak dira, 14 atal desberdinetan banatuta daudenak. Kandahar-en, arkeologoen Alexandria in Arachosia hiri helenistikoarekin erlazionatu dutena, XII eta XIII. ediktuen kopiak agertu dira Greziarrez eta Arameraz idatzita, hau da, komunitate greziarren eta pertsiarren jatorrizko hizkuntzak. Ediktuetako testuen analisiak berehala aditzera eramaten du komunitate greziarretan budismoa hedatzeak zenbaterainoko garrantzia zuen Asokarentzat. Horra hor Kandahareko XIII. Ediktuaren lagin bat:

*The conquest by dhamma, this has been won repeatedly by Ashoka both here and among all borderers, even as far as six hundred yojanas... among the Yonas everywhere people are conforming to Ashoka's instruction in dhamma.<sup>5</sup>*

Ediktuak *Yona* terminoaren bitartez komunitate greziarrari erreferentzia egin ez ezik Siria, Egipto, Epiro eta Mazedoniako errege helenistikoen izen guztiak aipatzen ditu zehaztasun handiz, Asoka agintari greziarren garrantziaz jabetuta zegoela adieraziz. Halaber, inskripzioa idatzi zuenak pentsaera budista nahiz greziararenanako lotura estuak dituela ematen du. Hau horrela, historialari batzuek idazlea Mauriarren zerbitzurako itzultzaile moduan lan egiten zuen greziar bat izan zela proposatuko dute, zeina ediktuan kontzeptu budistekiko erakusten duen gertutasunagatik seguruenik budismora konbertitu zen (Halkias 2014:87-88).

Bestalde, Greziarren konbertsioa bultzatu nahi zituzten misio kanpainak Sri Lankako palieraz idatzitako kroniketan ere aipatzen dira. Dagoeneko aipatu dugun hirugarren kontzilio budistaren ostean Gujarateko zonaldera budaren mezua zabaltzera abiatu zen misiolari bat jatorriz greziarra zen Dharamaraksita monjea izan zen, zeinak kroniken arabera Saurashtra-ko Yovana hiria konbertitu zuen. Hau horrela, greziarren artean gauzatu zen konbertsio prozesu baten aurrean egongo ginateke. Era berean, Maharakshita ezizenarekin ezagutzen zen beste monje Yovana bat Asokaren esanetara joango zen *Yona*

---

<sup>5</sup> Halkias, 2014:87

bezala izendatutako greziarren lurradeetara misio kanpaina luze batean (McEvelley, 2002:668-669). Hona hemen ekimen hau aipatzen duen kronikaren zati bat:

*The wise Mahārakkhita, who went to the country of the Yona delivered in the midst of the people the Kālakārāma-suttanta. A hundred and seventy thousand living beings attained the reward of the path (of salvation); ten thousand received the pabbajā.<sup>6</sup>*

Nahiz eta kronikek aurkeztutako zifrak exajeratuak izan, Asokaren garaiko lehen misioek zuten proiektzio globala aditzera eramaten dute. Halaber, aztertu ditugun ediktu eta kroniketan greziarrak komunitate budistaren parte bezala aurkeztzen dira, greziarren arteko konbertsioen kasuak nagusituz. Hortaz, Asokaren lehen konbertsio kanpaina hasten den momentutik budaren mezua greziar hizkuntza eta diskurtsora egokitu ez ezik budismoaren hedapenean funtsezko paper bat izango dute jatorri greziarreko monje batzuek. Hain zuzen ere, misioen eta pentsaera nahiz sineskera budistak bereganatzen joango diren greziarren kopurua handitzen joango da hurrengo mendeetan, jarraian ikusiko dugun bezala, budismoak Indiako sarrerako merkataritza sareetan finkatuta dauden komunitate greziarren bizilekuetan nagusitasuna irabaziz.

#### **4. SINKRETISMOAREN SENDOTZEA (K.a. III-I)**

##### **4.1 Eutidemiaren Dinastia eta kultura eklektikoaren garapena**

Greziar kulturak eta herentziak Gandharan eta India Iparraldean izan zuen loraldia ez ezik, helenismoak budismoa bezalako tokian tokiko sineskerekin izandako sintesi prozesua ezingo litzateke ulertu greziar Eutidemiaren Dinastiaren papera kontuan izan gabe.

K.a. III. mendearen erdialdean, Asokak arestian aipatutako misiolariak greziarren lurraldeetara bidali zituen garaian hain zuzen, Baktriako satrapia Inperio Seleukotarretik autonomia irabazten hasiko zen Diodotus satraparen (k.a. 285-239) altxamenduen ostean. Hala ere, Diodotoren semea hil zuen Eutidemo jenerala (k.a. 260-195) izango zen Baktriako erreinuaren behin betiko independentzia lortuko zuena k.a. 206an Baktria

---

<sup>6</sup> Kartunnen, 2015:240

hiriburuko setio seleukotarrari aurre egitean. Hau horrela, Eutidemok Baktriako kontrol politikoa eskuratuko zuen [ikusi 4. Mapa eranskinean] (Tarn, 1922:71-110).

Hots, Eutidemiar dinastiako erregeak ez ziren soilik Baktriako lurraldeak soilik kontrolatzera mugatuko, izan ere, k.a. 189an Demetrius I-ak (K.a. 222-180), Eutidemoren semeak, Mauriar Inperioaren gainbehera aprobetxatuz Hindu Kush mendikatea zeharkatu eta India konkistatzeko kanpaina militar bat hasiko zuen. Kanpaina hauen emaitza, zeintzuei buruz Apollodoro idazle greziarrak (Strab. 11.11.1) eta *Yuga-Purana* sanskritozko testuak hitz egiten diguten, Gandharatik Mathurara hedatzen eta Barygazako portura iristen zen erreinu greziar baten sorrera izan zen<sup>7</sup> [ikusi 5. Mapa eranskinean]. Hain zuzen ere, erresuma honetan ezarri ziren greziarrek, historialariek Erresuma Indo-Greziarra bezala izendatu dutena, sineskera indiarrek eta bereziki budismoak izugarritzko indarra zuen komunitate batzuekin topo egingo dute (Tarn, 1922:129-145).

Bestalde, kontuan izan behar dugu nahiz eta greziarrentzat ezaguna zen munduaren ekialde hurrunean ezarri, *oikumene* helenistikoaren, hots, asentamendu greziarrek osatutako lurraldeen parte zirela Baktrian eta Indian ezarri ziren greziarrak. Izan ere, ekialde eta mendebaldeko zibilizazioak lotzen zituzten merkataritza sareen topagunetan zeuden erresuma hauetara lapis lazulia eta zetazko ehunak bezalako luxuzko produktuen bila zetorren diaspora greziarra iritsi ez ezik, ekialde urrunera iritsitako greziar hauek haiekin batera Homeroren kultura helenoa eramango zutela. Modu berean, *koine* greziarraren, hau da, greziar hizkuntza estandar baten sorrerak Baktria eta Indiako erresuma greziarrek gainontzeko *oikumene* helenistikoarekin izandako interakzioak erraztuko zituen (Mairs, 2016:893-895).

Ai Khanoum-en aurkitutako antzerki greziar, gimnasioa eta zutabe korintiarren aztarnak, esaterako, herentzia helenoaren elementu adierazgarriak dira. Dena den, ezin dugu ahaztu Baktria eta Indiako erresuma greziarrek, Alexandroren politika mazedoniar integratzailea jarraituz, inguruko zibilizazioen ohitura nahiz sineskerak ere asimilatzen joan zela. Adibidez, iraniar kolonoen presentzia handia, Baktriar armada nahiz administrazioan, eta ezkontza mistoen praktika dela eta, ohikoa izango da jatorriz greziarrak ez diren estilo

---

<sup>7</sup> Historiografia tradizionalak momentu honetatik aurrera bereizketa bat proposatzen du. Hau horrela, Hindu Kush mendikateen Iparraldea kontrolatzen zuten errege greziarrek Greko-Baktriar erresuma osatuko zuten. Mendikateak zeharkatu eta India okupatu zuten greziarrak, nahiz eta Eutidemiar Dinastiakoak ere izan, Indo-Greziarrak bezala izendatuko zituzten.

pertsiarreko eraikuntzak edota kultu zoroastrikoen zantzuak aurkitzea Ai Khanoum bezalako aztarnategi batean (Mairs, 2013:447-450).

Hortaz, hasiera batetik Baktria eta Indiako erresuma greziarrek herentzia helena mantendu eta inguruko zibilizazioen elementuak bereganatzen zituen identitate misto bat garatu eta politika integratzaile bat bultzatu zutela esan dezakegu. Hau horrela, etorkizunean Budismoa bezalako pentsaera sistema guztiz atzerritarren asimilazioa Alejandro Handiaren garaitik nagusitzen zen politika integratzaile baten jarraipena izango zen.

#### **4.2 Greziarrak eta budismoa: Menandroren kasua eta ikonografiaren garapena**

Budismoak bere hedapenaren historian zehar izandako arrakasta bere mezua munduko izaera desberdineko kulturentzat egokitzeko trebeziari zor dio. Hain zuzen ere, arestian aipatu ditugun Indo-Greziarrei, bere arbasoek k.a. V. mendetik bultzatzen hasitako humanismo pragmatikoan, pentsaera arrazionalen eta berdintasunean oinarritutako kultura bat mantentzen jarraitu zutenei, erakargarria egingo zaie gizabanakoen berdintasuna eta esperientziaren garrantzia azpimarratzen dituen budismoa bezalako pentsaera sistema atzerritar bat. Era berean, haien kontrolpeko lurraldeetako erlijio nagusia budismoa izanik, budismoarekin sinpatizatzeak errege Indo-Greziarrei haien lurraldeetako komunitate budista indartsuaren babesa eskuratzea ahalbideratuko die (Shukla, 2014:270-272). Hau horrela, ohikoa izango da budismoa asimilatzen ari diren greziarren adibideak topatzea Erresuma Indo-Greziarren historian, budismoak bere jatorrizko diskurtso indiarra pixkanaka galdu ez ezik elementu greziarrak inkorporatzen joango da.

Zalantzarik gabe, budismoaren asimilazio greziarra adierazten duen kasu ospetsuena Menandro I (k.a. 165-130) errege Indo-Greziarren “konbertsioa” da *Milindpanha* testuan. *Milindapanha* palierazko literatura budistako testu klasiko ez kanoniko bat da, Menandro (Milinda palieraz) eta Nagasena izeneko monje budista baten arteko eztabaida filosofikoa aurkezten duena. Hain zuzen ere, testu honen analisiak elementu indiar eta greziarren arteko sintesia erakusten du, budismoa ideia atzerritarrek asimilatzera ohituta zegoen gizarte eklektiko baten parte izatera pasako zen testuingurua islatuz.

Testuaren istorioari begira, paralelismo argi bat antzeman daiteke *Milindapanha* eta *Samannaphala Sutta*-ren, azken hau Buda eta Magadhako erregearen arteko eztabaida aurkezten duen testu budista kanonikoa izanik. Izan ere, bi testuetan erabilitako hizkuntza, pertsonaia eta testuinguruak bereziki antzekotasun nabarmena dute. Sutta azkoz zaharragoa izanik, autore batzuk *Milindapanha*-ren idazleak Menandro Magadhako erregearekin konparatzea bilatzen zuela proposatuko dute, errege greziarrek doktrina budistaren garapenean funtsezko papera izan zutela adieraziz (Sick, 2007:272-275).

Egiturari erreparatuz, berriz, *Milindapanha*-k literatura indiarretik baino tradizio filosofiko greziarretik gehiago edaten duela esan dezakegu. Izan ere, Menandro eta Nagasenaren arteko elkarrizketa filosofikoa metodo dialektiko sokratikoa ezaugarritzen duen galdera eta erantzunen arteko txandakatzearen bitartez aurkeztuko da (Halkias, 2014:91-93). Halaber, testuan aipatzen diren Menandroren zerbitzariak, *yonaka*<sup>8</sup> izendapena eramaten dutenak, Nagasena monjearen alde jartzen direla azpimarratzen da. Izan ere, erregeari kontra egiteko arrazoia, budismoarekiko zuten gertutasuna ez ezik, zerbitzari hauek Nagasenaren eztabaidatzeko trebetasuna miresten zutela izan zitekeen, greziar filosofoen jarrera estereotipiko bat hain zuzen (Sick, 2007:271-272).

*Milindapanha*-ren bukaeran, Nagasenari arrazoia eman ostean, Menandro budismora konbertitu eta bizitzan zehar komunitate budistaren aldeko politika babesle bat bultzatuko zuen, literatura budistan Asokaren pareko budismoaren patroia ospetsuenatariko bat eta *arhat*<sup>9</sup> bihurtu arte. Modu berean, Plutarkok Menandro hiltzean bere errautesak erlikia moduan erresuma Indo-Greziarreko *stupa*<sup>10</sup> desberdinetan sakabanatu zituztela esaten du (Plut. Praecepta, 28, 6). Azken praktika hau, *Mahaparinibbana Sutta*-rekin<sup>11</sup> izugarrizko paralelismoa izan ez ezik, hildakoak erre eta hauen errautesak urrezko hilkutxetan banatzeko erritu mazedoniarrekin ere antzekotasun handiak ditu (Halkias, 2014:93-94).

Ezin dugu aho betez esan, nahiz eta *Milindapanha* bezalako testuek kontrakoa adierazi, Menandro I.a budismora konbertitu zenik. Dena den, faktore historiko batzuek

---

<sup>8</sup> Izendapen hau lehen aipatu dugun sanskritoazko *yona* terminoaren diminutibo bat izan daiteke. Hau horrela, *yonaka* bezala izendatutako pertsonaiek helenizatutako indibiduoak zirela proposatuko dute autore batzuek (Sick, 2007:272).

<sup>9</sup> Tradizio budistan bizitzan zehar Nirvana lortu duen gizabanakoari deritzo. "Santu budistak" bezala ere izendatu dituzte autore batzuek, hauen erlikiekiko kultuek izandako garrantziagatik.

<sup>10</sup> Tenplu budistetan Budaren nahiz *arhat* monjeen errautesak eta erlikiak gordetzen diren eraikina.

<sup>11</sup> Kanon budistako budaren bizitzako pasarte ospetsua, non buda hil ostean bere errautesak *stupa* desberdinetan banatzen diren erlikia moduan.



budismoaren aldeko politika bat bultzatzea erabaki estrategiko bat izan zitekeela erakutsi dezakete. Izan ere, Menandrok, Demetrius I.-aren jenerala zela, K.a. 180. hamarkadan zeharkatu zuen Hindu Kush mendikatea India konkistatzeko, Mauriar Inperioa sortu berri zen Sunga Inperioaren (K.a. 185-75) gorakadaren ostean desagertu zen momentuan hain zuzen. Sunga agintariek, Brahmanistak izanik, komunitate budistaren eskubideak murriztu zuten, Asokaren garaitik nagusitzen zen budismoaren aldeko politikarekin bukatuz. Hau horrela, baliteke greziarrek budismoa asimilatzeak atzean helburu politiko bat izatea, mehatxuan zegoen biztanleria budista haien alde jarriko zelako. Halaber, haien Indiako kanpaina militarrean Sunga Inperioa kanporatzean komunitate budistak Menandro bezalako agintari greziarrak budismoaren babesle bezala irudikatuko zituen, Milindapanha-n ikus daitekeen bezala hain zuzen (Shukla, 2014:277-278 & Tarn, 1922:265-267).

Milindapanha alde batera utzita, badira beste iturri batzuk Indo-Greziar erresumako erregeek budismoarekiko zuten gertutasuna adierazi dezaketenak. Iturri numismatikoek, esaterako, jatorriz budistak ziren sinbolo batzuk Indo-Greziarren gizartean zenbateraino asimilatu zitezkeen erakutsi diezagukete errege greziarren txanponetako ikonografiaren eboluzioa aztertuz. Egia da Demetrius I.-aren txanponak oraindik garai helenistikoko errege greziarren zilarrezko txanponen estandararekin bat datozeela, hau da, aurrealdean erregea modu estereotipiko batean<sup>12</sup> perfilez aurkezten da eta atzealdean Herakles bezalako panteoi greziarreko jainko ikoniko bat irudikatzen da ΒΑΣΙΛΕΩΣ ΔΗΜΗΤΡΙΟΥ leienda greziarrarekin batera [Ikusi 1. Txanpona eranskinean].

Demetrius-en semea eta Gandhara ondoko probintzia bateko erregeordea zen Agathocles-en (K.a. 190-180) txanponek, berriz, ohiko estandar greziarrarekin guztiz apurtzen dute. Izan ere, bere txanponek azkoz gertutasun nabariagoa izango dute estandar indiarrarekin, forma triangeluarra duten kobrezko txanponak produzituz. Halaber, Agathoclesen txanponetan panteoi indiarreko jainkoak ez ezik zuzenean budismoarekin erlazionatu daitezkeen sinboloak irudikatu dira, stupa bat edota Budak Nirvana lortu zuen zuhaitzaren forma eskematikoak esaterako [Ikusi 2. Txanpona eranskinean]. Txanpon hauetan erabilitako idazkera sistema ere kharoshtia izanik, autore batzuek Agathocles

---

<sup>12</sup> Autore batzuek Demetriusek elefantearen estalkia eramatearen sinboloa Indiako konkisten ostean asimilatu zela proposatuko dute. Dena den, Tarn-ek teoria hau ezeztatuko du elefantearen estalkiaren sinboloa Alejandro Handiaren txanponetan ere erabili zela argudiatuz, Demetrius-en txanponak Alejandroren konkistei erreferentzia eginez (Tarn, 1922: 131).

bezalako agintariek, hain zuzen ere, Indiatik hurbil zeuden lurraldeen kontrola eskuratu zutenak, sinbolo budistak ezagutu eta komunitatearen babesa irabazteko budismoaren aldeko politika bat bultzatzen hasiko zirela proposatuko dute (Shukla, 2014:272-273).

Funtsean, Menandroren kasuaren adibidearekin eta Baktria nahiz Indiako errege greziarrek produzitutako txanponen ikonografiaren eboluzioaren bitartez argi ikusi daiteke greziarrek haien eragin politikoaren esfera Indiarantz zabaltzean budismoa bezalako pentsaera sistema guztiz atzerritarrak asimilatzen joan zirela. Era berean, nahiz eta budismoaren oinarritzko kontzeptu eta sinbolo batzuk haien gizartean inkorporatzen hasi, Indo-Greziarrek haien arbasoen herentzia helenoa mantentzen jarraitu zuten. Hain zuzen ere, joera honi jarraituz hurrengo mendeetan, aurrerago ikusiko dugun bezala, Indo-Greziarren kontrolpeko zonalde garrantzitsua izan zen Gandhara-ko eskualdean kultura greziarra eta budismoaren elementuak bateratuko zituen arte eskola bat sortuko zen, GrAL honek aztergai duen sinkretismoak eskola honek produzitutako kultura material oparoan bere loraldia izanik.

## **5. GREKOBUDISMOAREN LORALDIA (K.o. I-II)**

### **5.1 Kushan Agintarien filohelenismoa eta Kanishka Handia**

Zalantzarik gabe, ezinezkoa izango litzateke Budismoak antzinaroan zetaren bideko merkataritza sareetan zehar izandako hedapen eta arrakasta ikaragarria Kushan Inperioaren (c. k.o. 30-375) papera kontuan hartu gabe azaltzea. Izan ere, Budismoak bere historian ezagututako hedapen handiena ezagutu ez ezik, Kushan agintarien herentzia helenoarekiko errespetua eta zaletasunari esker kultura greziarra Budismoaren hizkuntza grafikoa definituko zuen oinarritzko elementu bat bihurtuko zen.

Kushan Inperioa jatorriz txinatarrek Yuezhi bezala ezagutzen zituzten Asia zentralerako herri nomaden bateratasun politikoaren bitartez sortuko zen k.o. I. mendean. K.a. 130 inguruan Yuezhiak, *Han Shu* kronika txinatarren arabera, Xiongnu izeneko tribu nomaden aurkako gerra bat galdu ostean Baktriara ihes egingo zuten. Baktrian, 200.000 arkulari zaldunek osatutako armada batek lagunduta, hamarkada batzuk lehenago errege greziarren gobernuarekin bukatu zuten Saka tribu nomadak kanporatuko zituzten. Hain zuzen ere, botere militar ikaragarri honi esker, Yuezhiak Hindu Kush mendikatea zeharkatu eta Asi zentraleratik Ganges ibaira arte hedatuko zen lurralde zabal baten

kontrola eskuratuko zuten, iraganeko erresuma Indo-Greziarraren domeinuen tamaina gainditu ez ezik India Txina eta Mediterraneoarekin lotzen zituen merkataritza sareen kontrola eskuratuz [ikus 6. Mapa eranskinean] (McLaughlin, 2015:74-81).

Kulturari erreparatuz, politika integratzaile bat bultzatzeak Kushanek konkistatutako lurraldeen herentzia politiko eta kulturala bereganatzea eragingo zuen haien ohitura nomadak mantentzen zituzten bitartean. Alejandroren etorreratik mantendu zen herentzia helenistiko handia kontserbatzen zuen Baktriarra iristean, esaterako, Yuezhiek ez zituzten suntsituko Ai Khanoum bezalako hiri helenistikoak. Aitzitik, iraganeko erresuma greziar hauen kultura materiala errespetatu ez ezik, jatorriz herri inbasore agraroak ziren Yuezhiek greziar eta kharoshti idazkera sistemak inportatuko zituzten. Halaber, Kushan agintariak Baktriarren estandarrean oinarrituz hasiko ziren lehen aldiz txanponak produzitzen. Historialari batzuk oraindik haratago joango dira, Kushanek urrezko txanponak produzitzen hasteko arrazoia erromatarrekin Itsaso Gorriko itsas merkataritzaren gorakadagatik iritsitako *aureus* txanponen eragina dela proposatuz. Honi guztiari hurrengo atalean aztertuko dugun tradizio greziar klasikotik edaten duen arte estilo baten presentzia gehitzen badiogu, argia da Kushan Inperioko kultura eklektikoan herentzia helenoa funtsezko osagai bat zela (Liu, 2010:42-46).

Bestalde, Kushan gizartea ezaugarritu zuen beste elementu bat erlijio aniztasuna izan zen, zeina Kushan angintariak bultzatutako erlijio askatasunaren ondorioa bezala kontsideratu dezakegu. Hain zuzen ere, nahiko arrunta da Kushan enperadoreen txanponetan jaingo Greziar, Indiar, Zoroastriar nahiz Budisten irudikapenekin aurkitzea. Dena den, Kanishka I.-a (k.o. 127-150) bezalako Kushan agintarien Budismoaren aldeko jarrera azpimarratu nahiko nuke, zeintzuk arte budistaren produkzioa bultzatu eta komunitate budistari laguntza ekonomikoa eman ez ezik Budismoa haiek babestutako zetaren bideko merkataritzari esker hedatzea ahalbideratu zuten. Tradizio literario budista Kanishka budismoaren historiako bultzatzaile handietako bat bezala aurkeztera iritsi zen, VII. mendean Baktria bisitatu zuen Xuangzang monje txinatar erromesak, esaterako, Kanishkaren figura Asokarekin konparatuko zuelarik (Homrighausen, 2015: 32-33). Modu berean, Kanishkak Peshawar-en, Kushan Inperioren hiriburu-etako batean, eraikitzea agindu zuen *stupa* erraldoia, zeinaren eraikuntzan artisau greziarrek parte hartu

zuten<sup>13</sup>, Kushan agintariak komunitate budistaren alde egindako donazio anitzen adibide garbi bat da (McLaughlin, 2015:88-90).

Bada, funtsean, Kanishka bezalako Kushan agintariak kultura greziarra eta budismoaren arteko sinkretismoaren loraldia gerta zedin beharrezkoak ziren baldintzak ezarri zituztela esan dezakegu. Alde batetik, herentzia helenoa Kushanen kultura politiko eta grafikoaren oinarritzko osagai bat bihurtu zen, alfabeto greziarra, greko-erromatar estandarreko txanponen produkzioa nahiz estilo artistiko greziar klasikoetatik zuzenean edaten zuen lengoaia grafikoa bezalako elementuak asimilatuz. Bestalde, Budismoa, beste erlijio askoren artean, Kushan agintariak babestu eta atzerrira hedatzen lagundu zuten erlijioa bihurtu zen.

Hain zuzen ere, bi osagai hauen bateratzea Jajalabad-eko stupa batean aurkitutako Kanishkaren txanpon bateko ezaugarrietan ikus daiteke [Ikusi 4. txanpona eranskinean]. Besteak beste, urrezko txanponak erromatar aureus estandarra eta leienda greziarra erabiltzea, Kanishkaren perfilezko posizioa eta budaren irudikapen helenistikoa elementu greziarrak bezala identifikatu daitezke. Bestalde, Budaren irudikapena, zeina Budak historian izandako errepresentazio figuratibo zaharretako bat kontsideratu da, Budismoaren aldeko gertutasuna adierazten duen ebidentzia argia da. Azkenik, Kanishkaren irudikapenak Kushanek haien inperioko kultura eklektiko horretan mantenduko zuten hirugarren osagai bat erakusten digu: Herri nomadaren identitatea. Izan ere, Kanishkaren bizar luzea, jantzi zabala eta larruzko botak zaldian ibiltzen den gerlaro nomada baten ezaugarri adierazkorak izango dira (Liu, 2010: 47-49).

## **5.2 Gandharako artea: Heraklesek Buda ezagutu zuenean**

Haien babes militarrek ahalbideratu zuen hedapen masiboa ez ezik, Kushan agintarien politika integratzaileari esker Budismoak bere historian ezagututako garapen ikonografiko garrantzitsuena ezagutu zuen. Izan ere, Kushan Inperioren garaian elementu greziarrak eta budistak bateratzen zituen Gandharako eskolako artelanen produkzioa bere puntu gorenera iritsiko zen. Funtsean, Gandharako eskolako artelanak

---

<sup>13</sup> Artisau hauen izen greziarrak stuparen aztarnetan aurkitako erlikario batean grabatuta aurkitu dira. Historialariek greziar hauek erresuma Indo-Greziararen gainbeheraren ostean biziraun zuten komunitate greziarren ondorengoak nahiz Erromatar Inperiotik Itsaso Gorriko merkataritza arruten bitartez iritsi ziren artisauak izan zitekeela proposatu dute (McLaughlin, 2015:89).

GrAL honek aztergai duen sinkretismoaren materializazioa eta puntu gorena bezala kontsideratu ditzakegu.

Eskola artistiko honek Budismoak k.a. I. mendera arte mantendutako tradizio ikonoklastarekin apurtuko zuen, teknika, estilo eta motibo helenoen erabileraren bitartez arte budista humanizatu bat sortuz. Gandharako tenpluetan, esaterako, kapitel korintiarretan budaren irudikaoen figuratiboak aurkituko ditugu [ikus 1. Irudia eranskinean]. Hain zuzen ere, herentzia greziar klasikoaren eraginak arte budistaren iraultza antropozentrista bultzatu zuela proposatuko dute autore batzuek (Scott, 1985:137-138). Halkias bezalako historialariek, bestalde, Gandharako Buden aurpegiaren modeloa Apolo greziar jainkoa izango zela defendatuko dute [ikus 2. Irudia], etorkizunean zetaren bidetik zehar zabalduko zen Budaren irudikapenek influentzia greziarra izanik (Halkias, 2014:103-104).

Gandharako eskolaren jatorriari dagokionez, arte mota hau Kushan okupazioarekin batera garatu zela esan dezakegu, Gandharako lehenengo artelan budistak Kushanek Indiako konkistaren hasieran bereganatu zituzten Indus ibaiaren mendebaldeko lurraldeetan azaldu direlako. Arestian aipatu dugun budismoaren aldeko politika babeslea kontuan hartuz, ulergarria da Kushanen garaian artelan budisten produkzioa bere puntu gorenera iristea. Era berean, ez da bat ere arraroa Gandharan elementu artistiko greziarren eragina erakusten duen arte budista bat garatzea hain zuzen ere, aurreko ataleetako eboluzio historikoan ikusi dugun bezala, greziar populazioak eta herentzia helenoak presentzia handia izandako esparru batean. Hau horrela, k.a. I. menderako Gandharako arte grekobudistaren sorrera ahalbideratu zuten hiru faktore bateratu zirela esan dezakegu. Lehenik eta behin, Saka eta Kushan herri nomaden inbasioen ostean biziraun zuten biztanle greziar errefuxiatuen presentzia, hauen artean kalitate handiko artelan grekobudistak prduzitzeko tailerrak sortuko zituzten artisauak aurkituz. Bigarrenik, Kushan agintariek haien botere militar oparoari esker komunitate greziar nahiz budistari tributuen truke eskaintako babes. Hirugarrenik, Zetaren Bideko merkataritzako aberastasunen metaketak monumentu, eraikuntza nahiz edozein artelan budista eraikitze beharrezkoa zen oinarri ekonomikoa eskaintzen zuen, Gandhara bezalako merkataritza sareen topaguneetan kokatuta zeuden monastegiek merkatarien etengabeko donazioak jasoz (Cheema, 2007: 84-88).

Nahiz eta Gandharako eskolak kultura greziarretik zuzenean hartutako elementu ugari erabili zituen motibo budistak irudikatzen, Heraklesen figurak arte grekobudista honetan izan zuen funtzioa azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, Herakles bezalako jainko heleno ikoniko batek Indian izandako garapen ikonografikoa, zeina Alejandro Handiaren kanpainekin hasi zen, jatorriz greziarrak ziren elementu batzuk kosmobisio budistara egokitzeko haien esanahia zenbateraino alda zezaketen erakusten duen adibide paregabea kontsideratzen dut.

Herakles garai klasikoetatik izan zen greziar gizartean ospe handia izan zuen indarrarekin erlazioatutako jainko bat. Era berean, bere irudiaren erabilerak, helburu propagandistikoetarako, presentzia handia izaten jarraitu zuen Alejandro Handia nahiz bere ondorengoak ziren errege helenistikoaren txanponetan. Arestian aipatu ditugun Baktria eta Indiako erresuma greziarretako agintariek, adibidez, maiz irudikatzen zuten Heraklesen figura, Zeus edota Atena jainkoekin bezala, haiek jaulkitutako txanponetan. K.a. I. eta II. mendeko Gandharako artisau greziarrei dagokionez, badirudi Herakles tradizio budistako *Vajrapani* pertsonaiaren moduan irudikatzen hasi zirela [ikus 3. Irudia eranskinean].

*Vajrapani* palierazko literaturan Buda babesteko funtzioa duen jainkoa izango litzateke, jatorriz mitologia Hinduistako Indra jainkoak betetzen zuela. Jainko honen ezaugarri bereizgarria Budaren etsaiak uxatzeko erabiltzen duen *Vajra* izeneko arma izango litzateke, tximistak jaurtitzeko ahalmena duena. Agerikoa da *Vajrapani*-arekin zuen paralelismo handiak Herakles aproposa bihurtzen zuela Budaren babeslearen funtzioa izateko, hain zuzen ere, oraindik herentzia greziarra kontserbatzen zuen gizarte batean. Hau horrela, *Vajrapani*-aren figurak bere jatorrizko itxura indiarra alde batera utzi zuen Herakles bere funtzioa betetzen hasi zelarik. Era berean, ikonografia honen atzean baliteke helburu politiko bat ezkutatuta izatea. Izan ere, jainko babeslea eta Budaren arteko erlazioak antzekotasun handia zuen Kushan agintariek komunitate budistan zehar izan nahi zuten irudiarekin. Hortaz, Herakles *Varjrapani*-a bezalako motiboak irudikatzen zituzten artelanen produkzioa sustatzea Kushan agintarien propagandarako baliabide bat izan zela esan dezakegu, hauek haien burua Budismoaren babesle bezala aurkeztu nahi zutelarik (Homrighausen, 2015: 27-33).

Bestalde, Heraklesen figurarekin batera, Gandharako artean presentzia nabaria izan zuen motibo bat erritu dionisiarrak izan ziren, hain zuzen ere, garai klasikoetatik gizarte

greziarrean ospe handia zuten praktikak. Drama greziarrak antzestu zitezkeen antzerki baten aztarnak eta musika tresnen zantzuak k.a. III. mendeko Ai Khanoum bezalako Baktria greziarreko aztarnategi batean aurkitu diren bitartean, Dionisio jainkoarekin erlazionatzen zen ardogintza Indian Kushan inbasioaren garaian ezarri zela ematen du. Hau horrela, ez da bat ere harrigarria k.o. I mendeko Hadda bezalako Gandharako *stupa* budistetako apaingarrietan ospakizun dionisiarrak ezaugarritzen dituzten ardoa, dantza eta musikaz betetako eszenak irudikatzea [ikusi 4. Irudia eranskinean]. Halaber, ospakizun dionisiarren irudikapen batzuek Kushan gizartea definitzen zuen testuinguru multikulturala aditzera eramaten dute. Swat-eko *stupa*-ko friso batean, adibidez, musika tresna greziarrak jotzen ari diren pertsonaia batzuk irudikatzen dira eszena dionisiar batean, zeintzuk, era berean, Kushan gerlari nomadak ezaugarritzen dituzten jantzi luzeak, txapel konikoa eta biboteak dituzte Buda eszenaren alde batean gelditzen dela [ikusi 5. Irudia eranskinean]. Nahiz eta eszena dionisiarrek Budismoak ukatzen zuen bizitza estilo hedonista bat irudikatu, autore batzuek eszena hauek *stupa*-ko sarreretan kokatzearen arrazoia Gandharako artistek *stupa*-ren barruko erlikia sakratu eta kanpoko mundu sekularren arteko bereizketa bat adierazi nahi zutela proposatuko dute (Brancaccio & Liu, 2009: 227-231).

Laburbilduz, Gandharako eskolako artelanek jatorriz greziarrak ziren elementu batzuk (Herakles, erritu dionisiarrak, Apoloren aurpegi prototipikoa...) budismoa nagusi zen esparru batean egokitzeke jasan zuten bilakaera erakusten digutela esan genezake. Hain zuzen ere, eskola artistiko honen loraldiak, Gandharan mantendu zen herentzia klasikoak budismoaren ikonografiaren garapena definitu ez ezik, Kushan agintariak artelan hauen produkzioa helburu politiko batekin bultzatu zutela adierazten digu.

## **6. ONDORIOAK:**

Kultura greziarra eta budismoaren arteko sinkretismoa baldintza soziopolitiko, historiko eta ekonomiko batzuei esker posiblea izan zen.

Alejandro Handiaren kanpaina militarrek Baktria eta India Ipar-Mendebaldean haien kultura belaunaldiz belaunaldi transmitituko zuen populazio greziar bat ezartzea ahalbideratuko zuten, ondorengo erresuma helenistikoek nahiz Kushan agintari nomadek herentzia heleno hau mantenduz. Halaber, Zetaren Bideko merkataritza arruten topagunetan kokatutako esparruak kontrolatzeak, antzinaroko zibilizazio desberdinen

produktuekin batera ideia desberdinak etengabe iristen zirelarik, zonalde hauetako agintariak inguruko ohitura, kultura eta sineskerak bereganatzeko politika integratzaile bat izatera behartu zituen.

Bestalde, Budismoak Asokaren garaitik aurrera inguruko lurraldeetara zabaltzeko misiolarien kanpaina masiboak ezagutu zituen. Biztanleria greziarra nagusi zen mendebaldeko lurraldeak misiolaritzaz kanpaina hauen helburu izan ez ezik, misiolarien artean Yona bezala izendatu zituzten jatorri greziarreko monjeak ere aurkitzen ziren, Kandahareko ediktuek nahiz Sri Lankako kronikek adierazten duten bezala. Hau horrela, Asokaren konbertsio kanpainetatik aurrera India eta inguruko komunitate greziarren barneko budismorako konbertsioak posibleak izan zitekeela esan genezake.

Lan honetan aztertu dugun sinkretismoaren garapenari dagokionez, egia da Eliseko Pirronen kasua kontzeptu budista batzuk lehen aldiz diskurtso filosofiko greziarrera egokitu zituen aurrikin bat bezala kontsideratu dezakegula. Dena den, Eutidemiaren Dinastiako errege helenistikoak izan ziren, budismoa nagusi zen esparru baten kontrola eskuratzean, sinbolo eta ohitura budista batzuk helburu politiko batekin asimilatzen hasi ziren lehen greziarrak. Izan ere, budismoaren aldeko politika bat bultzatzea, *Milindapanha* testuak egiten duen Menandro erregearen errepresentazioan ikusten den bezala, komunitate budistaren babes eskuratzeko estrategia aparta izan zitekeen. Era berean, Erresuma Indo-Greziarreko errege Eutidemiaren txanponen eboluzioan argi ikusten da nola progresiboki elementu greziar eta budistak alderatzeko joera duen ikonografia bat sortzen ari den.

Kushan agintarien babes militarrek, Zetaren Bideko merkataritzak eskainitako oinarri ekonomiko sendoa eta Alejandro Handiaren garaitik mantentzen zen herentzia greziarra bezalako faktoreen bateratzeak sinkretismo hau Gandharako eskolako produkzio artistikoetan materializatzea ahalbideratu zuen. Hain zuzen ere, Gandharako arte grekobudistan budismoak bere jatorrizko izaera indiarra galtzen zuen Herakles bezalako figura ikoniko batzuek bere esanahia guztiz aldatzen zuten bitartean. Hortaz, kultura greziarraren elementu batzuk ikonografia budistaren funtsezko osagaiak izatera iritsiko ziren, elementu hauetako batzuk, Budaren irudikapen antropizatua bezala, gaur egun arte biziraun dutelarik.



## 7. ERANKSKINAK

### 7.1 BIBLIOGRAFIA:

BECKWITH, C. I. (2015): *Greek buddha: Pyrrho's encounter with early Buddhism in Central Asia*. New Jersey: Princeton University Press.

BRANCACCIO, P., & LIU, X. (2009): "Dionysus and drama in the Buddhist art of Gandhara", *Journal of Global History*, 4 (2), 219-244.

CHEEMA, I. K. (2007): "The Historical Origins and Development of Gandhara Art", *International Journal of Buddhist Thought and Culture*, 8, 75-91.

FOLTZ, R. (2010). *Religions of the silk road: Premodern patterns of globalization*. New York: Palgrave McMillan.

HALKIAS, G. T. (2014). "When the Greeks converted the Buddha: Asymmetrical transfers of knowledge in Indo-Greek cultures". WICK. P. & RABENS V. (eds.) *Religions and trade*, 65-115. Leiden: Brill.

HOMRIGHAUSEN, J. (2015): "When Herakles followed the Buddha: Power, protection, and patronage in Gandharan Art.", *The Silk Road*, 13, 26-35.

KARTTUNEN, K. (2015). *Yonas and Yavanas in Indian literatura*. Helsinki: Finnish Oriental Society.

KUZMINSKI, A. (2008). *Pyrrhonism: How the ancient Greeks reinvented Buddhism*. Lanham: Lexington Books.

LIU, X. (2010): *The Silk Road in world history*. Oxford: Oxford University Press.

MAIRS, R. (2011). *The Archaeology of the Hellenistic Far East: A Survey. Bactria, Central Asia and the Indo-Iranian Borderlands, C.300 BC-AD 100*. Oxford: BAR.

MAIRS, R. (2013): “Greek settler communities in Central and South Asia, 323 BCE to 10 CE.”, QUAYSON A. & DASWANI G. (eds.): *A Companion to Diaspora and Transnationalism*, 443-454. New Jersey: Wiley-Blackwell.

MAIRS, R. (2016): “Lapis Lazuli, Homer and the Buddha: Material and Ideological Exchange in West Asia (c. 250 BCE-200 CE).”, HODOS T. (ed.): *The Routledge Handbook of Archaeology and Globalization*, 885-898. London: Routledge.

MCEVILLEY, T. C. (2012). *The Shape of Ancient Thought: Comparative studies in Greek and Indian philosophies*. New York: Allworth.

MCLAUGHLIN, R. (2016): *The Roman Empire and the Silk Routes: The ancient world economy & the empires of Parthia, Central Asia & Han China*. Barnsley: Pen and Sword.

SANUJIT. (2011): *Cultural links between India & the Greco-Roman world*.  
<https://www.ancient.eu/article/208/cultural-links-between-india--the-greco-roman-worl/>

(2019ko Apirilaren 4an azken kontsulta)

SHUKLA, R. (2014): “Contribution of Buddhism in adaptation of the Indo-Greeks: An observation”, *International Journal of Multidisciplinary Approach & Studies*, 1 (4), 270-279.

SICK, D. H. (2007): “When Socrates met the Buddha: Greek and Indian dialectic in Hellenistic Bactria and India.” *Journal of the Royal Asiatic Society*, 17 (3), 253-278.


TARN, W.W. (1922): *The Greeks in Bactria and India*. Cambridge: Cambridge University Press.

## 7.2 MAPAK




1. Mapa: Alexandroren kanpaina militarra Indian (k.a. 330-325)

8.



2. Mapa: Mauriar Inperioa eta Erresuma Helenistikoak Diadokoen Gerren garaian (k.a. 320-275)




3. Mapa: Mauriar Inperioaren hedapen maximoa Asokaren erreinualdian (c. k.a. 250)



4. Mapa: Baktriako Erresuma Greziarraren hedapen maximoa Demetrius I.-ak Indiako konkista hasi baino lehen (c. k.a. 180).



5. Mapa: Erresuma Indo-Greziarraren hedapen maximoa autore desberdinen arabera (c. k.a. 150).



6. Mapa: Kushan Inperioaren hedapen maximoa Kanishka Handiaren erreinualdian (c. k.o. 127-150).


### 7.3 IRUDIAK



**1. Irudia:** Jamal-Garhi (Gandhara) aztarnategi arkeologikoan aurkitutako kapitela korintiarra Buda irudikatzen (k.o. I).



**2. Irudia:** Ezk.: Gandharako Budaren eskultura (k.o. I-II), Tokyo National Museum. Esk.: K.a. IV. mendeko Apolo Belvedere eskulturaren kopia erromatarra (k.o. II), Vatican Museum.



**3. Irudia:** Gandharako Buda eta Herakles Vajrapani (K.o. I-II), Ostasiatische Kunst Museum (Kolonia).



**4. Irudia:** Hadda-ko (Gandhara) Stupa bateko friso baten zatia erritu dionisiarrak irudikatzen (k.o. I-II), Musee Guimet (Paris).



**5. Irudia:** Swat-eko (Gandhara) Stupa bateko friso baten zatia Kushan nomadak eta buda eszena dionisiar batean irudikatzen (k.o. I-II), Museo d'Arte Orientale (Turin).

#### 7.4 NUMISMATIKA:



**1. Txanpona:** SNG ANS 190. Baktriako Demetrius I.-a (k.a. 222-180). Aurrealdea: Demetrius elefante azalarekin egindako diademarekin. Atzealdea: Herakles bastoiarekin bere buru koroatzen. Leienda Greziarra: *ΒΑΣΙΛΕΥΣ ΔΗΜΗΤΡΙΟΥ*



**2. Txanpona:** Bühler, WZKM. VIII, 206 or. Baktriako Agathocles (k.a. 190-180) erregeak indiar estandarrei jarraituz jaulkitutako txanpona. Aurrealdea: *Akathukreyasa*, Kharostiz idatzita; Ganean izar bat duen Stupa bat. Atzealdea: *Hitajasame*, Kharostiz berriz; zuhaitz eskematikoa.



**3. Txanpona:** *Ex Triton VIII* (2005), lot 676. Kanishka Handiaren (c. k.a. 127-150) urrezko txanpona budista. Aurrealdea: Kanishka perfilez Kushan erregeen janzkera tipiko eta greziarrez idatzitako leiendarekin (*ΠΑΟΝΑΝΟΡΑΟ ΚΑ ΝΗΡΚΙ ΚΟΡΑΝΟ*). Atzealdea: Buda greziar estiloko tunika batekin irudikatua *ΒΟΔΔΟ* leienda greziarrarekin batera.



## 7.5 ITURRI LITERARIOAK

### **Diogenes Laerzio:**

DIOGENES LAERTIUS (1972): *Lives of Eminent Philosophers*. HICKS R.D. (itz.). Cambridge (MA): Harvard University Press.

### **Plutarko:**

PLUTARCH (1936): *Moralia*. FOWLER H. N. (itz.). Londres: William Heinemann Ltd.

### **Estrabon:**

STRABO (1924): *The Geography of Strabo*. JONES H. L. (itz.). Londres: William Heinemann Ltd.